

2007KO URRIAK 25

25 DE OCTUBRE DE 2007

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIZKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2007KO URRIAK 25

DIA: 25 DE OCTUBRE DE 2.007

HASIERA ORDUA: 17:30

HORA DE COMIENZO: 17:30

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Xabier OLAIZOLA ANTIA
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO

EZ DIRENAK BERTARATU

NO ASISTEN

Cristina FORCADA UNANUE.

IDAZKARIA:
SECRETARIA

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA

Herritarrak agertu dira.

Asiste público.

Alkate jaunak bilera eratutzat
ematen du.

Se da por constituida la
sesión por el Alcalde-Presidente.

1.- AURREKO BILERAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO
BADA:2007.09.27

APROBACION DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR, SI PROCEDE:
27.09.2007

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon, badakit batzuk falta direla, Nerea adibidez etortzeko dago, trenean etortzekoa da eta Cristina ez dator. Emiliano hemen zegoen, baina ez dakit nora joan den. Nahi baduzue, zain egongo gara pixkabat.

Hasi baino lehenago, badakizue 5 t´erdietan konbokatu genuela ez ohizkoa bezala hain zuzen ere zinegotzi batzuk ezin zutelako etorri, guztiei deitu zitzaizuen ahal zenuten edo ez zenuten eta idazkariarekin bat, nahiz eta azkenengo plenoan akordioa izan zen 7 retan hasiko zirela plenoak 7´erdietako partez, baina zinegotziak ezin dutela guztiak hemen izan eta aldatu da. Pili lehentxeago joatekoa dela eta arazoak daudenez, horregatik aurreratu dugu pixka bat plenoa.

Zain egongo gara 5 minutuz.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hasi egingo gara.

A. ETXANIZ JNA: Hasi egiten gara, bai, berandu xamar da 20 gutxi ere badira eta etorriko dira etorri behar badute,-PSEkoengatik- eta behintzat aztergaia eta aurreko aktarekin hasiko gara.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aurreneko puntu bezala, daukagu beti bezala, aurreko bilerako aktaren onarpena, badakit erdarazko idazpenean akats bat detektatu dela, Mirenek esplikatuko dun zein den, akatsa.

IDAZKARIA: Bai, gaztelerazko aktan akats bat dago, esan dudan bezala, Industrias Gairen puntuan, ez da bozketa jasotzen, diktamena jasotzen da, baina bozketa ez. Akats bat izan da eta hori jada zuzenduta dago.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Beste norbaitek zerbait esatekorik, aktari buruz ?

J.J AZPIAZU JNA: Nik bi aipamen egingo ditut, lehenengo puntuan eta ogasunean:

IRAILAREN 27KO AKTARI ZUZENKETAK

1. AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA:

2007.07.14KO AKTARI DAGOKIONEZ:

- 2.orriaren bukaeran: Josebaren abizena jartzen duenaren alderantziz dela: “z”rekin eta ez “s”rekin.
- Esan nuen gauza bat falta dela txertaztea: Uztailaren 14an eztabaida bat egon zen eta oposizioak liberazioei eta batzordeen eraketei buruz azalpen batzuk eman zituen. Bertan esan zuten aurretik esan gabe ezin zirela gauzak erabaki etab. Nik erantzun nuen orduan, uztailaren 14ko plenoa (alkatea aukeratu ondoren lehendabizikoa), hain zuzen ere, legeak esaten duen bezala justu horretarako egiten dela: hautetsien ordainsariak proposatzeko, batzorde informatzaileen eraketa eta osaketa proposatzeko etab. Gainera 1. eta 2. pleno hauen artean ez da izaten batzorderik eratu gabe daudelako.

2. OGASUNA: 2006KO KONTU OROKORRAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:

5.orrian txertatzeko dago irakurri nuen Testua:

- 2006ko aurrekontuak onartu gabe gelditu ziren PNVec soilik babesten zituelako.
- Dena dela, proposatutako aurrekontuaren zati handiena aurrera atera zuten PNVec eta PSOEek kreditu aldaketa baten bitartez.
- Kontu orokor hau aurrekontu horien exekuzioa da, beraz, aurrekontuak ez genituenez onartu, beraien exekuzioa ere ezin dugu onartu.
- Aurrekontu proposamena “déficit”arekin aurkeztu zen, baina kontu hauetan ikusten denez, azkenean ia 2 milioiko superabita egon da (1.901.204,65 €).
- Gastuen exekuzioa %71,3koa izan da. Aipatzekoa da 6.kapitulua exekuzioa soilik %53,4 izan delako. Kontutan hartu behar da 6.kapitulu hau (inbertsioena) 9 kapituluetatik handiena zela diferentzia askorekin.
- Hasiara baten esaten denean “aurrekontu inbertitzailea” dela, gero inbertsio horiek ez badira exekutitzen (kasu honetan %47 ez da exekutatu) bere izaera guztiz aldatzen da.

7.orrian jartzen duena: nik esan nuen kontu orokorreko txostenean jartzen duena, hau da: Ekitaldiko emaitza (mozkina) edo Resultado del ejercicio (Beneficio) honakoa izan zela: 3.113.742,77 €

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hola y bienvenidos- PSEkoeri zuzenduaz-. Estamos en el primer punto del orden del día, en la aprobación de las actas, no se si tenéis algo que decir o nó.

ERABAKI ZATIA	PARTE RESOLUTIVA
<p style="text-align: center;">BOZKETA</p>	<p style="text-align: center;">VOTACION</p>
<p>Bilerara bertaraturiko batzarkideek aho batez onartu dute 2007-09-27ko akta, azalduko aipamenak kontuan izanik.</p>	<p>Se aprueba el acta de la sesión de fecha 27-09-2007, por unanimidad de los asistentes dando conformidad a la subsanación mencionada.</p>

2.- OGASUNA.
HACIENDA.

2.1.- 2008-erako TAXI ZERBITZUAREN PREZIOAK ONARTZEA,
BIDEZKO BADA.

APROBAR LAS TARIFAS DEL SERVICIO DE TAXI PARA EL AÑO 2008, SI PROCEDE.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bigarren puntura pasatuko gara. Bigarren puntua ogasuna 2008.ko Taxi zerbitzuaren prezioak onartzea, bidezko baldin bada. Josebak ogasuneko batzorde buru bezala du hitza.

J.J AZPIAZU JNA: Bai, taxien gaia, azken batzordean ikusi genuen, eskari eta galderetan eta orduantxe egun horretan iritsi zen. Dakizuen bezala taxien zerbitzua mankomunitateak eramaten du, orain dela pare bat urte edo oker ez banabil, bateratu egin zen eta urtero bezala proposatzen da, KPIa igotzea eta gainera mankomunitateak eskatzen digu plenoan onartu behar dela. Mankomunitatean onartua dago. Txosten bat dago taxilariena diru sarrerak eta gastuak jasoz. Ez du irakurtzea merezi. Batzordean denak alde zeuden eta ez dakit merezi duen Diktamena irakurtzea ere. Norbaitek zerbait baldin badauka irakurriko dut eta bestela ez. Husten dut unanimitatea dagoela.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: Bai, dena den ez dakit baten bat ohartu den baina badago aldaketa bat aurreko, urteekin alderatuz eta da lehenago ez zegoela tarifa minimo bat eta orain bai.

Orain tarifa minimoa da 4,32 piko € eta horretaz ez genuen ezer ere komentatu batzordean, baina bueno hemen dago, ez dakit ezertan aldatzen duen gauza baino behintzat jakinen gainean izan gaitzen.

J.J AZPIAZU JNA: Ez dudana komentatu ez dakit zergatik, bataz besteko bat egiten duela KPIarena, Gipuzkoako KPIarena eta gero garraioarena eta azkenean gutxiago ateratzen da baina 1,4 ateratzen da. 2008ko igoera 1,4 ateratzen da.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Besterik ez baldin badago bozkatzera pasatzen gara.

ERABAKI ZATIA

Batzarkideek aho batez,

ONARTU DUTE:

LEHENENGOA: 2008rako Auto taxi zerbitzuaren tarifak eguneratzea ondorengo proposamenaren arabera:

TARIFEN PROPOSAMENA 2008					
1. TARIFA *			2. TARIFA **		
Gutxieneko Tarifa	Ibilitako kilometroa	Itxaronaldia orduko	Gutxieneko Tarifa	Ibilitako Kilometroa	Itxaronaldia, orduko
4,3242	0.9228	17.62	5,1474	1.4718	27.70

- Tarifa hau aplikatuko da lanegunetan, 07:00etatik 21:00etara.
- Tarifa hau aplikatuko da egunero 21:00etatik 07:00etara. Tarifa hau aplikatuko da, baita ere, igandetan, jaiegunetan eta larunbatetan (Autonomia Erkidegoko eta Toki araudiek ezarritakoaren arabera) 07:00etatik 21etara.

Gutxieneko Tarifak 1,5 kilometro eta bost minutuko itxaronaldia barneratzen ditu.

BIGARRENGOA: Akordio honen ziurtapena Urola Kostako Mankomunitateari igortzea.

PARTE RESOLUTIVA

Por unanimidad de los asistentes,

SE ACUERDA:

PRIMERO: Actualizar las tarifas de auto-taxi para 2008 de acuerdo con la siguiente propuesta:

PROPUESTA DE TARIFAS PARA 2008					
TARIFA 1*			TARIFA 2**		
Tarifa mínima	Kilómetro recorrido	Hora de espera	Tarifa mínima	Kilómetro recorrido	Hora de espera
4,3242	0.9228	17.62	5,1474	1,4718	27.70

- Se aplicará esta tarifa los días laborables desde las 07:00 hasta las 21:00 horas.
- Se aplicará esta tarifa todos los días desde las 21:00 hasta las 07:00 horas. Se aplicará esta tarifa también los domingos y festivos, así como los sábados (establecidos en la regulación de la Comunidad Autónoma y en las regulaciones locales) desde las 07:00 hasta las 21:00 horas.

La Tarifa mínima incluye 1,5 Km. De recorrido y cinco minutos de espera.

SEGUNDO: Enviar una certificación del acuerdo a la Mancomunidad Urola Kosta.

2.2- 2008. EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS ORDENANZAS FISCALES PARA EL AÑO 2008.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bigarren puntua, Ogasunaren barruan 2008. EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEA bidezko bada.

J.J AZPIAZU JNA: Esplikatuko dut Gai hau hiru batzordetan ikusi da, 2008ko ordenantza fiskalak eta laburpen bat eginda proposatzen dena da, bai tasa eta zerga guztietan, batzuk kenduta, orain esango ditudanak KPIaren igoera. Konkretuki zabor bilketan dago eztabaida eta beste guztiak KPIa gutxi batzuk kenduta, borobildu egin direnak. Adibidez, musika patronatuko prezioak beraiek eskatutakoak, beraiek proposatutakoak dira eta KPIa eta borobilduta daude.

Berrikuntza bezala sartu dugu hiri ondasun higiezinako zergan bonifikazio bat %50 ekoa, Eusko Jaurlaritzako bizigune programan sartzen direnei zuzendua, etxebizitza hutsa daukatenak eta sartzen direnak programa horretan edukiko dute % 50eko bonifikazioa, demostratu beharko dute kontratuekin etbr...

Eta bestela beste guztia KPIa da, ez dakit hau guztia irakurtzea merezi duen edo ez. KPIa 2,3koa izan da Euskal Autonomi Erkidegokoa eta hori izan da hartu duguna.

Oraindik ere kontribuzioen zergan ez gera iristen mediara gutxiagatik, agian datorren urtean iritsiko gara, ez dakit.

Azken orduan, aldaketa txiki bat musika patronatuari dagokionez, prezio batzuk sartu gabe zeuden eta bueno gauza berri batzuk dira, itxuraz, aurten sartu direnak musika eskolan ikasgai bezala, eta dira:

Armonia 43 € izango dena, Informatika musikala 50 €, Instrumentuaren 3. nibela 41 € eta Dantza 10 €

Eta prezio hauek sartu gabe zeuden eta aurten jadanik hasi dira ikasgai horiek ematen.

P. ETXABE ANDREA: Dantza bai dagoeneko hasita dago ematen, baina besteak armonia, informatika musikala eta instrumentua hirugarren nibela orain hasiko dira. Ogasuneko bileran ez genuen hau ikusi zeren atzo patronatuko bileran ipini zirelako prezioak. Ikasgai horiek eman ahal izateko deialdi bat egin zen eta ikusi da jendea apuntatu dela eta orduan eman egingo direla klase horiek.

Besterik ez.

J.J AZPIAZU JNA: Beste aldaketa bat, zaborrarena da % 33 a igotzen dela.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bai, ez dakit zerbait esatekorik daukazuen baina nik gobernu batzordearen izenean emendakin bat sartu nahiko nioke Ordenantza fiskal hauei, ondorengo esaten duena: Emendakina 2008rako ekitaldirako ordenantza fiskalak onartzea bidezko bada, 2007-10-16ko hazienda batzordeko diktamena aldatzea, zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatiko tasaren atalean zabor bilketari dagokionez, gaur egun dagoena mantenduaz, alegia, emendakin honen bidez lortu nahi dena da diktamena bere osotasunean mantentzea, baina zabor bilketari dagokion eta egon zen eztabaida hura, albo batera utzi, eta gaur egun aplikatzen den tasa kopuru berdina mantentzea, hori Gobernu Batzordearen izenean egiten dugu E.A. eta A.N.V.ren izenean. Emendakin hau, bozkatu aurretik, zerbait esatekorik baduzue?

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: Emendakinari dagokionez alde batetik nahiko jokoak kanpo uzten gaitu, azken orduko berri honek, zeren azken finean batek batzordeetan diktamenak bozkatzeko dituen aldeak bozkatzeko dituen bere horretan eta aldatzekotan jakinaren gainean egon beharko ginateke etorri aurretik gutxienez aztertzeko gaia eta gutxienez erantzuna prest edukitzeko, baina ez dut ulertzen zein den proposatzen duzuen emendakin horren zergatia, edo ze bilatu nahi duzuen horrekin, azken finean eztabaida planteatu zen, zuen hasierako proposamenean zaborretan % 33ko igoera planteatzen zenutelako. Igoera handia, txikia ezin esan denik, handia baina benetako koste errealekin alderatuz, ez hain handia zeren estimazio optimistetan % 116ean igoko baitira zaborren kostuak 2008-rako. Orain emendakin horrekin egiten duzuen zabor bilketaren tasa bere horretan kongelatuta utzi eta ez % 116 a ez, % 70 a ez, % 33a ez eta IKPa ere aplikatu eta hori Europatik datozen araudi edo nola dira, direktiba guztien aurka joateaz aparte, tasen izaeraren aurka ere badijoa eta pentsatzen dugu Udalaren interes ekonomikoen, eta ez Udalaren interes ekonomikoak ekonomizistak direlako, baizik eta udalak herrian eragin behar duenez eragin hori egin ahal izateko bere kapazidadean murrizpen handia dakarrela. Bere horretan lagatzea pentsatzen duzue edo behin behineko plantamentu bat da, eta hala bada nola aurreikusten duzue egoera honi irtenbidea ematea?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Behin behinekoa da badakigulako udaletxe honetan eta pentsatzen dut legealdi guztian zehar horrela izango dela. Indar politikoen neurketak ba ozta-ozta daudelako eta bakoitzak elkarren beharra daukagulako eta garbi esanda Udal ekipoak edo Gobernuak zeukan apoioa,

babesak ez zuen ziurtatzen eta honekin eskua luzatu nahi dut akordio bat zentzu horretan iristeko norbaitzuekin.

Akordio non izango litzake, “en la exposición pública” hemendik hilabetea dagon esposizio publiko horretan pentsatzen dut akordio batera iritsi daitekeela, hala eta guztiz ere ez da Zumaiako Udaletxea bakarrik eredu hori aurrera eraman duena, badakigulako gure mankomunidade bertan ere Zarautzek politika berdina aplikatu duela % 15eko igoerekin oker ez baldin banago, nahiz eta adierazi duten, hori behin behineko erabaki bat dela. Gure kasuan izango den bezala, ondoren hartuko dute erabaki zehatzago bat gure intentzioa berdina da eta ikusiko dugu planteamentu horrekin edo zentzu horrekin planteatzen den emendakina sartzen dugun.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: Ulertzen ez dudana da egiten zenuten planteamenduarekin nola dakizuen ez zirela aurrera aterako Ordenantza Fiskalak.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Garbi adierazita, atera zitezkeen badakigu atera zitezkeela, baina guk aruntzago nahi dugu iritsi, ez dugu nahi desadostasun handirik sortzerik eta gure borondatea da adieraztea, guk gehiago hitz egin nahi dugula nahiz eta agian atera, baina garbi adierazita guk nahiko genukeen baino babespen gutxiago geneukala nahiz eta igual atera zitezkeen zen eta nik huste dut gure aldetik horrek adierazten duela, ba horixe, ulermenezko borondate bat nahi dugula eduki hemendik aurrea guztiekin, bai gai honetan eta bai beste batzuetan ere.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: Akaso guzti guztiekin ez. Zeren guri ez diguzue behintzat gure iritzirik eskatu ere egin, baina, azken finean berdin dio, borondatea izango duzue adostasun handietara iristeko eta hori printzipio bezala oso ondo geratzen da, baina gestioaren erantzukizunaren aldetik, barkatuko didazue baina nahiko neurri friboloa iruditzen zait.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Berriz diot, Zumaian egin den bezalaxe Zarautzen egin dela, non PNV ere Gobernuan dago. Emiliano.

SR. E. CABAÑAS: En principio el dictamen lo que incluía era una subida por debajo del coste real de las basuras, incluso creo que la del agua

también si mal no recuerdo. Aunque aquí no se ha comentado por parte de Joseba. En este momento se ha aplicado a todo del IPC salvo a las basuras y al agua. Nosotros en el primer momento dijimos que no podíamos estar de acuerdo en crear un déficit dentro del propio ayuntamiento, a sabiendas de que eso no tiene solución a futuro, sino que se va incrementando y por lo tanto ese déficit cada vez sería mayor. Ahora entiendo que lo que estais planteando es que se aprube el dictamen a excepción de las basuras- porque el agua no ha entrado ahí- buscando un apoyo. Yo entiendo que el apoyo solo puede venir dado por asumir la realidad y cuando uno esté gestionando lo debe de asumir al 100%.

Basuras, el coste que tienen es el que es, además choca un poco con el punto anterior, la subida del taxi, que se ha aplicado, y que estamos todos de acuerdo y todas las hemos votado a favor, pero emana de un dictamen que emite la mancomunidad de San Marcos en base a la comisión del taxi que determinan un precio.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: La Mancomunidad de UROLA COSTA.

SR. E. CABAÑAS: Urola Costa tienes razón, perdona, ando con el otro chip; que determina cuál es la subida hay a quien nos parece lógico y el Ayuntamiento lo aplica al 100%. Lo mismo ocurre con las basuras, Urola Costa ha determinado cual es la subida, cual es el valor y cual es el coste real, sin embargo eso no se asume; entonces, se trata de buscar apoyos, digamos el que los demás asuman, en parte como he dicho anteriormente, esa gestión que no corresponde. En un caso sí y en el otro no. La realidad es la que es, el coste y la incrementación de ese coste viene por unos hechos que son reales inaplazables y se han visto incrementados y perjudicados por determinadas actitudes políticas que han obligado hacer un gasto a la propia mancomunidad que hoy no podemos de alguna manera recuperar. Ese coste que ha habido que hacer no se puede amortizar porque la política que se tenía que haber llevado a cabo no se ha llevado por determinadas posturas políticas que afectan, que es la postura política que puede ser de un grupo o de dos, pero que afectan al resto de las instituciones, sobre lo que ya estaba comprometido, se puede decir que se hizo anteriormente, en el anterior mandato y que por lo tanto esa representación política no estaba pero es que resulta que con esa, o esas representaciones políticas en este mandato se ha ratificado eso mismo, se ha vuelto a constituir el consorcio y ha vuelto a salir con esas mayorías y esas mismas políticas y cuestiones encima de la mesa, entonces lo que no se puede pedir algo cuando por una parte se quiere respetar un tema y el otro no se respeta, entonces hay que tener la misma actitud en todo, si se respeta la subida del taxi porque es un acuerdo de las mayorías que aplica

con los propios profesionales, respetese el otro acuerdo de mayorías también con los profesionales de turno que han planteado que eso es así, no tiene sentido que se busque una ayuda de la oposición para algo que se tiene que ejecutar como Comisión de Gobierno.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Es evidente que las Mancomunidades marcan la tendencia pero no se trata de respetar o no respetar. Se trata de que este pleno que es el soberano para debatir todo, debate y sera este pleno como el pleno de Zarautz, como el pleno de Getaria, los que debatan al final que clase de incremento tienen que tener. Las mancomunidades marcarán la tendencia y diran que es lo que cada pueblo tiene que pagar en concepto de tasas pero marca una tendencia. No todas las tasas son iguales, hay valoraciones políticas acerca por ejemplo de la recogida de basura, de la gestión de las basuras, que pueden ser legítimas tanto unas como otras en base a consideraciones políticas que cada uno tenga y considerar necesario aplicar el 100% o aplicar el 50% de incremento, como es nuestro caso, que sería el 33 %. Pero de todas formas, esto que se está planteando en Zumaia se ha planteado también en Zarautz, donde también el partido socialista está gobernando igual que el PNV.

A. ETXANIZ JNA: Hemen orain,egoera honen erantzule politiko batzuk daudela eta horren harira interbentzio bat egin du Emilianok eta nik pentsatzen dut gure Mankomunitate honetan egon den prebisio eskasaren ondorioak direla. Zeren orain arte aterata geneukan kalkulua eta eginik zeuden prebisioak zioten 4.300.000 € kostatuko litzatekeela daukagun bertederoaren itxitura eta ondoren 30 urtetako mantenua, baina kontua da orain prebisio falta hori nabaria, nabarmen geratu dela, zeren egin da egin behar zen azterketa eta 4.300.000 € ez 5.600.000 € beharko dira; 1.300.000 € gehiago 3 urtetan aportatu beharko duguna. San Marcosek agian pixka bat, ukituko ditu gure zenbakiak eta San Marcosek agian pixka bat argazkia desenfokatuko zuen baino benetan argazkia desenfokatu duena hori da, prebisio falta hori eta husten dut Emiliano hortik ez dihoala.

L. AMILIBIA ANDREA: Ni ez nago esaten duzuenarekin ados. Prebisioak aldatuko dira eta ajusteari sartu beharra eduki dugu, egia da 2039 arte ari garela prebisioak egiten eta ajusteari beharrezkoak dira. Bihar bertan bilera batzuk dauzkagu entitate finantzieroei eta horrek gora behera batzuk

ekarri ditzake, baina benetan hemen gauza desekilibratzen ari dena da San Marcos. Maiatzean pentsatzen genuen San Marcosen % 50a jasotzea, ez gara jasotzen ari, eta 100%a urrian jaso behar genuela ez garela ari jasotzen eta horrek prebisio guztiak lurrera bota dituela.

Fondo horrenak, baita ere, horrek ere desekilibrio txiki bat ekarri digu eta hor gabiltza eta 2039raino prebisioak egin behar ditugula eta ez zaigu erreza egiten. Zuek planteatzen duzuen benetan txokagarria eta larria da.

X. OLAIZOLA JNA: Bai, nik esan nahi dut guk batzordean aurkeztu genuela proposamen bat, proposamen hura, zaborren tasa hori IBI-ra pasatzea zen. Gure asmoa tasa horri progresibitate bat ematea zen, hau da, denak berdin ordaindu beharrean gehien daukanak gehiago ordaintzea, gutxien daukanak baino. Batzorde horretan ez zen hori onartu, baina emendakin honen asmoa hitz egitea baldin bada gu hitz egiteko prest gaude.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bai, esan nahi dudana da, borondatea azaltzen dugula, alegia. Hilabete bateko epe honetan adostasun batera iritsi gaitzkeela eta adostasun horretara iristen bagara larritasuna ez litzatekeela hainbestekoa izango. Hala eta guztiz ere, erabakia hau da, hain zuzen ere, gesto bat egiteagatik eta esateagatik babes gehiago nahi dugula edukitzea, nahiz eta igual eta kontziente ginen aprobatuta geratu zitekeela gure diktamena.

J.J AZPIAZU JNA: Diktamena berez, aprobatu egin zen, Aralar eta PNVren abstentzioarekin. Esan nahi nuen Xabierren proposamena ez zela onartu, eske ez zela ulertu ere egin. Esaten zenuten igoera hori zaborrean igo ez eta IBIn igo, baina ez dakit, nik esan nuen zerga bat tasa batekin nahastea zela eta ez daukala logika asko.

Gainera igoera horrekin IBIA mediatik asko igoko zen segur aski. Baita ere planteatzen zenuen %33ko igoera gutxi zela, gehiago igo behar zela eta ez dakit nola ulertu.

X. OLAIZOLA JNA: Bai igoera gutxi zela, baino gutxien daukanak gutxiago ordainduko zukeen eta asko daukatenak gehiago ordainduko zuketena. Udalak dirurik jarri gabe, hau da, gutxi daukatenak zuen proposamenean baino gutxiago ordainduko zuketena.

Igoera nahiz eta handiagoa izan, progresibitate hori eman ezker gutxien daukanak gutxiago ordainduko zuen baino hortaz hitz egingo dugu.

SR. E. CABAÑAS: Iñaki, no veo problema porque se retrase un mes la subida de la basura, no es un problema.

La cuestión es el concepto que se tiene de la situación actual en la cual está esa tasa en este momento actual derivado de una serie de situaciones. Eso es lo que importa, yo estoy dispuesto a debatir lo que haga falta, pero siempre tendré presente una cosa, si no asumo la realidad puedo estar eh....justificando una subida inferior a la del coste y que no es más que una manipulación por llamarlo en el mejor sentido de la palabra, sin ánimo de nada. En realidad hace que el Ayuntamiento vaya adquiriendo un déficit. Lo que supone dejar de invertir, o te tienes que endeudar para invertir, o sea, tienes que pedir, y que es lo que ocurre que si tienes que pedir al final no sólo pagas ese déficit, sino que engordas las arcas de los bancos con los intereses que te ponen por pagar, eso es lo que se pretende mejorar. El incrementar por debajo del coste la tasa de la basura, hace que sea más suave para el ciudadano, pero al final paga mucho más el ciudadano por esa tasa que lo que debía de pagar porque los intereses ahí no son coste de tasa. Eso hay que calcularlo bien, ser realistas y atender a eso, eso es lo que yo quería decir en sí.

No conocía al 100% la propuesta de Aralar, pero desde luego no estoy de acuerdo que el que más IBI tiene más paga. En el tema del desarrollo sostenible quien contamina paga, de ahí sale el valor del agua y de los residuos, pero hay una cosa clara, el IBI no es lo que marca precisamente el potencial económico de las personas en sí y la creación de basura ni mucho menos, porque tú puedes tener una vieja mansión, una casa vieja, como la quieres llamar, con un montón de metros con un IBI tal y resulta que vive una sola persona, porque ha vivido ahí con un montón de hijos y ahora está sola y como tiene un IBI alto aunque no genera prácticamente basura, le cargas al IBI un montón de dinero y en otra casa más pequeña pero que resulta que genera cinco bolsas de basura porque vive un montón de gente y pagan, menos. Eso no es realista al 100%, no digo que no pueda tener su cosa, pero no es realista al 100%. Las cosas están ya superconocidas y debatidas por todos los lados, busquemos la mejor forma de aplicar la realidad. Si intentamos manipular de alguna manera esa realidad queramos o nó, más tarde o más temprano va a salir a la luz y la realidad es la que es, nos guste o no nos guste, y ése es el tema.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: Hitz gutxitan % 50a aplikatzen zenutela esan duzu, Iñaki eta ez zen % 50a, igoeraren heren bat baina gutxiago zen. Edozein modutan, ez dakit orain mahai gainean lagatzea

gaiak suposatzen duen Aralarrek egiten duen planteamendua aztertzeko asmoa daukazuela, hala balitz, ezta bakarrik progresibitateari buruzko eztabaida luzea egin daitekeela, zeren, batek eduki ditzake pisu asko Zumaian eta beraz asko ordaindu IBIA, baina beste batek eduki ditzake pisu asko Zumaiatik kanpo eta gutxi ordaindu IBIA, hori, oso errelatiboa da. Baita ere, kontutan hartu behar da,- ni ez naiz aditua baina- zerga horrek tope minimoak eta maximoak dauzkala eta akaso tasari dagokion kopuru guztiak planteatzea IBIAri ez dela posible izango eta izango balitz ere kontutan hartu beharko litzateke zer margen geratzen den hemendik aurrera etorkizunean eta urte pilo bat gelditzen dira etorkizunekoak nola planteatu igoera horiek gehienezko tope horren azpitik, horixe zen esan nahi genuena eta hortik aurrera guk emendakinarena kontra bozkatuko dugu.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Orain hain zuzen ere botatzera pasako gara emendakina aurrea, gero emendakina onartu ondoren, Ordenantza Fiskalak bere osotasunean, onartzen baldin badira eta bidezko bada. Emendakina hau Udal Gobernuak sartu duen emendakina botatzera pasatzen gara.

SR. E. CABAÑAS: Si no hay más claridad, si la voluntad sigue siendo la misma aplicar el 33 %, en contra.

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

2.008. urterako Ordenantza Fiskalen proposamenari GOBERNU TALDEAK aurkeztutako **EMENDAKINA BOZKATZEN DA.**

Aldeko botuak: 6 (3 ANV , 2 EA eta 1 EB-B/ARALAR)

Aurkako botuak : 6 (4 EAJ, 2 PSOE)

Abstentzioak: 0

Emiatza : berdinketa.

Azaroak 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 100.2 atalaren arabera, bigarren bozketa bat egiten da eta berdinketa mantentzen denez, Alkatearen kalitate botuak erabakitzen du.

ERABAKI DA:

2.008. urterako Ordenantza Fiskalen proposamenari GOBERNU TALDEAK aurkeztutako **EMENDAKINA onartzea.**

SE VOTA LA ENMIENDA a la proposición de Ordenanzas Fiscales para 2008 presentada por el EQUIPO DE GOBIERNO.

Votos a favor: 6 (3 ANV, 2 EA y 1 EB-B/ARALAR)

Votos en contra: 6 (4 PNV, 2 PSOE)

Abstenciones: 0

Resultado: Empate.

De conformidad al art 100.2 del RD 2568/1986 de 28 de noviembre, se efectúa una nueva votación y persiste el empate, en consecuencia decide el voto de calidad del Alcalde.

SE ACUERDA:

Aprobar la ENMIENDA a la proposición de Ordenanzas Fiscales para 2008 presentada por el EQUIPO DE GOBIERNO.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Orain, emendakina hau onartuta diktamenaren osotasuna geldituko litzake bozkatzeko, basuraren tasa alboratuta, oraingoz.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: ANVko ogasun zinegotziak aurkeztu dizkigu 2008. urterako Ordenantza Fiskalen proposamenak, orokorrean, IKPa igo dute, Musika Eskolako tasetan izan ezik, hor KPIa bikoiztu baino gehiago egiten da eta zabor tasak bertan behera geratzen zaizkigu, momentuz sartutako emendakinaren arabera.

Guk beti defendatu izan dugu, Udalaren diru sarrera politika zentzuzkoa egin beharra dagoela, Udalaren martxa ona bermatzeko eta noski, Ordenantza Fiskalak zentzuzko irizpidetan oinarrituak behar dutela izan.

Aurreko legealdian, 2006. urtean oker ez baldin banago lortu genuen urte askotako jardueraren ondorioz, Gipuzkoako batz besteko prezio fiskalera iristea eta horren ondorioz 2.007ko ordenantzetan KPIa planteatu genuen irizpide orokor bezala. Beraz irizpide orokorrean ados gaude, pentsatzen bai dugu oraindik ere Gipuzkoako batz besteko horren pare edo urre behintzat bagaudela, orokorrean irizpide horrekin ados gaude, baino bi kontutan ez, beti planteatu dugu bai uraren kasuan eta bai zaborraren kasuan nahiz eta momentuan nonbait ez daukagu zer esanik, horren inguruan, KPIak ez du balio eta bi kasuetan tasak kubritu behar duela zerbitzuaren kostea. Aurten urari dagokionez egin duzuen kalkularen arabera, igoera erreala, kostuaren igoera erreala % 5,5 ekoa izango da eta KPI aplikatzen duzue, “por cierto”, galdera bat, Euskadiko KPI aipatu duzue, baina orain arte oker ez baldin banago Gipuzkoako aplikatu izan dugu eta zergatik aldaketa?

J.J AZPIAZU JNA: Azken urtean ez dakit, baina nik esango nuke autonomi erkidegokoa izan dela.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: Ez, Egingo nuke apustua ezetz, baina bueno apustu txikia akaso, baina egingo nuke ezetz, eta esan nahi dudana da, gaur zergatik planteatzen duzue Erkidegoko Autonomokoa?

J.J AZPIAZU JNA: Hemen dauzkat Estatuko, Autonomi Erkidegoko eta Gipuzkoako KPIaren datuak. Irakurri egiten ditu.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: Gipuzkoakoa baino baxuagoa delako aplikatzen duzue?.

J.J AZPIAZU JNA: Ez.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: Ez dakit, hor konpon, baina kontua da gauza hauek behar izaten duela historikoki koherentzia bat ere, eta zuk aplikatzen baduzu interbalo bat, abuztutik abuztura kasu edo dena dela edo kriterio bat, hori aldatzen ibiltzea nor bere buruari tranpak egiten aritzea da.

J.J AZPIAZU JNA: Hau ez gara egon aztertzen, hau, nik Kontu hartzailearekin hitz egin nuen eta nik ulertu nion azkenengoan ere Euskal Herrikoa onartu zela, ez dakit non dauzkadan datuak.

M.E ARRIZABALAGA ANDREA: Edozein modutara eta Erkidego Autonomoko KPIarekin alderatuz uraren kostutik geratzen gara 3,2 puntu azpitik horrek inplikitzen duena da 2008. urtean uraren kontzeptuan zulo hori eragingo dela eta behin eta berriz errepikatu den bezala majina bat batzorde eta horrelako Plenoetan, zulo hori handitzen joango dela datozen urteetan. Eta Europako Direktiba Marko del Aguako dio bere 9. artikuluan: “los Estados miembros tendrán en cuenta el principio de la recuperación de los costes de los servicios relacionados con el agua incluidos los costes medio ambientales y los relativos a los recursos de conformidad con el principio de que quien contamina paga.”

Eta Alkateari akordarazten diogu bere alderdiko ingurumen arduradunek bultzatuta 2006 . urtean Lege Biltzarrak aprobatu zuela uraren Euskal Legea eta uraren Euskal Lege honetan 41. artikuluan diola “ tarifa edo kanonak Europako zuzentarauak ezarritakoa bete beharko dute eta zenbatekoa zehazteko kontuan hartuko da urarekin zerikusia duten zerbitzuen kostua berreskuratu beharraren printzipioa, inbertsioak, amortizazioak, mantenduaren eta ustiatzearen kostuak eta ingurumen kostuak eta oro bat kontutan hartuko dela kutsatzen duenak ordaindu egin behar duela, dioen printzipioa”, eta beraz, akordarazten dizuet uraren kontuarekin ez duzuela Legea betetzen.

Zaborren inguruan banitun baita ere, komentario batzuk, baina aurrez egin behar izan ditugu eta planteatuta ez zegoen erabatetan, eta dena den bukatzeko ANVek aurkezten dituzenez, aurtengo Ordenantza Fiskal hauek eta oposizioan egotea zer den eta Gobernuan egoteak ere bere kontra esanak ekartzen dituela kasu on batzuetan agerian uzteko asmotan edo 2005.eraiko Ordenantzak onartzerako Plenoko aktatik ateratako hitz gutxi batzuk aipatu nahiko nituzke, adibidez: “ Etxebizitza hutsetan salbuespen bezala Udalak errekaruak jarri ditzake” zion orduan Izustarriko zinegotziak gaur ANVkoa denak, ba aurtun... ekartzen duzuen planteamenduan ez ANVek ez EAK noski ez duzue IBian inolako errekarurik proposatzen etxebizitza hutsetan.

Beste aipamen batek zion Ekonomi Jardueren gaineko zerga, ongi iruditzen zaigu KPIa baino gehiago igotzea zerga hau, ba aurtun hona, ontzat ematera ekartzen duzuen proposamenean ez duzue ba Ekonomi Jardueren zergan KPIa baino igoera handiagorik planteatzen. Esan dudak bezala gauzak aldatu egiten direlako segun bat non dagoen, nonbait, edozein modutara inkoherentziak, zalantzak, dudak, gabeziak, gure hutez zaborrarekin egin duzuenak argi lagatzen duen aurreikuspen faltak eta gauza guztiak kontutan hartu bai baina alde batera utziz, kontsideratzen dugu, ordenantza inkonpleto eta ez oso on hauek hobeak direla aurreko Ordenantzen prorroga baino, eta gure abstentzioarekin ahal bideratuko dugu besterik gabe hori aurrera ateratzea.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Oso ondo, orain PSOE.

SR. E. CABAÑAS: El tema del agua es otra realidad que está ahí. Tenemos una Directiva Europea y un Decreto del Gobierno Vasco, que hay que aplicar..Se están haciendo ahora las redacciones en las cuales están trabajando los diferentes estamentos competentes, incluida la Diputación. Se sigue manteniendo el principio -cómo se ha dicho- del que contamina paga y que los costes del agua tienen que, reflejarse en las tasas, los costes reales de la misma, para precisamente con ello ir buscando la posibilidad de generar el Desarrollo Sostenible se ponga en marcha de una vez. Esto se sigue sin aplicar aquí en esta materia y podíamos estar de acuerdo en que el IPC es como criterio la subida como dice M. Eugenia y es cierto y por lo tanto estar de acuerdo, pero es que no podemos estar de acuerdo al 100% cuando hay una parte que se incumple a sabiendas que se está incumpliendo. Nosotros no vamos a dar un voto positivo a algo que sabemos que estamos haciendo mal, de antemano, y que deberíamos de estar corrigiendo. Ellos entienden que es más negativo el no aplicar la subida que hay que aplicar, yo creo que no hay ningún problema si ahora se

rechazan y se tiene que rehacer, puesto que vamos a rehacer lo de la basura, por lo tanto, si se rechazan y se tienen que rehacer se rehacen enteras, no sería ningún tipo de problema, si vamos a retrasar lo de la basura un mes, o lo que sea, no tiene porque causar ningún problema, que el resto de las tasas también se retrase un mes, si da lugar a que se tenga que hacer un nuevo dictamen y se recojan toda las realidades de lo que suponen las tasas, por lo tanto nosotros no nos vamos abstener aquí sino que vamos a decir que no como lo anterior, en base a que la realidad nos guste o no nos guste, vuelvo a repetir, es la que es y tiene que estar ahí y sino está lo único que estamos haciendo es camuflandola pero no la vamos a evitar, por lo tanto nosotros vamos a seguir manteniendo el no a éste dictamen mientras no se aplique realmente las Ordenanzas que están encima de la mesa que nos obligan a todos.

M. ZUBIA JNA: Galdera bat nahi diat egin, igoera %3koa, %4koa izan behar dikela ari gaituk hizketan, nik orokorrean jakin nahiko nitek, zenbat suposatzen diken €tan, igoera horrek. Une honetan bazezkiagu gastu batzuk ordaindu behar dizkiagula zaborra eta uraren azalpenean eta hor diferentzia bat sortzen duk. Nire galdera duk, azken batean Udaletxerako zenbat suposatzen diken sortzen duken diferentziak. Aplikatzen duken politikaren arabera diferentzia era ezberdinean banatu dezakek herritarrengan. Kostuak ez badizkiagu erreperkutitzen herritarrengan Udalak orokorrean zenbat gehiago ordaindu behar diken.

J.J AZPIAZU JNA: Zaborraren gastuak 2008.rako, Mankomunitatea definitzen denean esango dugu zehazki, baina momentuz dagoena, Hazienda Batzordean erabilitako datuak dira eta Kontuhartzaileak daukan txostenarekin lau hipotesi daude:

- 1.- San Markos, zaborra urrian ekartzen hasten baldin bada.
- 2.- Azaroan hastean bada.
- 3.- Abenduan hastean bada.
- 4.- Urtarrilean hastean bada.

Kostu txikiena hartuta ere, eta kontutan hartuta “Fondo de Cobertura” debengatu egiten dela itxura denez nahiz eta Mankomunitateak, 2009. urtera arte ez digun eskatuko ordaintzea, igoera izango litzateke % 117a, eta horren kostua zenbakietan da 698.000 €2008rako.

Ikusi beharko litzake azkenean zenbat erabakitzen dugun igotzea, diferentzia atera beharko litzake. Igotzen badugu %33, ze diferentzia

aterako zen %10 edo %20a, ez dakit zenbat igoko dugun, hori izango litzateke.

1. hipotesian eta 4. hipotesian %126a eta 2a. eta 3 bien bitartekoa, hau da %117 eta %126 bitartean daude. Baina gero Andonik esan duenez ere Mankomunitatearen azkenengo batzorde Exekutiban berriz ere aldaketa bat egon da, orduan azkenean badirudi gehiago izango dela, nola ez dakigun zenbat izango den, kostu exaktoa ez dago, eta ez gure errua delako.

Zer ikusi handia dauka Mankomunitateak, bi faktore berri daudelako kostua aldatzen dutenak.

